

**KOD.: A120**

**BERDINTASUN AGENTEA**

***LEHEN ARIKETA  
BIGARREN PROBA***

***Denbora, gehienez: 120 minutu  
Galderak: 120.***

EREDUA:

**D**

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredia.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
  - Asmatuak: 1,00
  - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Eredua marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

**Eskerrik asko zure laguntzagatik**

- 1. Emakunderen 2018ko zifrak. Emakumeak eta gizonak Euskadin txostenean zenbait baieztapen egiten dira EAeko irakaskuntzari buruz. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
  - a) 2016-2017 ikasturtean, nesken eskolatzeta-tasa gordinak behera egin du batxilergoan, 1998-1999 ikasturtearekin alderatuta.
  - b) Azken hamarkadetan igoera handia izan du eskolatzeta-tasa gordinak haur hezkuntzan, bai nesken bai mutilen kasuan.
  - c) 2017an, eskola uzte goiztiarren tasa (18 urtetik 24ra) nabarmen baxuagoa da nesken kasuan mutilen kasuan baino.
  - d) Bilakaeraren ikuspuntutik, nabarmena da goi mailako ikasketetan eskolatzeta-tasa gordinak izandako igoera handia, eta bereziki, mutilen artean izandakoa, zein 2016-2017 ikasturtean jada nesken tasatik hurbil baitago.
  
- 2. Emakunderen 2018ko zifrak. Emakumeak eta gizonak Euskadin txostenean zenbait adierazpen egiten dira EAeko lanari buruz. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
  - a) Azken 10 urteetan, goranzko bilakaera erakusten du amatasunagatiko prestazioen kopuruak.
  - b) Familiak zaintzeagatiko eszedentzia-eskaerei dagokienez, gizonetzkoen portzentajeak ez du goranzko joera argia erakusten azken urteetan, baina zenbaki absolutuetan bada igoera 2012tik aurrera.
  - c) Aitatasunagatiko prestazioek beheranzko joera dute 2010etik, 2017an izan ezik, urte horretan igoera ikus daiteke eta.
  - d) 2017ko datuek erakusten dutenez, emakumeek eta gizonak antzeko zailtasunak ikusten dituzte bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko baimenak eta lizentziak eskatzeko orduan.
  
- 3. Emakunderen 2018ko zifrak. Emakumeak eta gizonak Euskadin txostenean zenbait adierazpen egiten dira emakumeek Eusko Legebiltzarrean eta Eusko Jaurlaritzan duten partaidetzari buruz. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
  - a) Emakume hautetsien ehunekoa Eusko Legebiltzarraren XI. agintaldian izan zen, lehen aldiz, gizonena baino handiagoa (% 55 emakumeak).
  - b) Eusko Jaurlaritzari atxikitako 10 erakunde autonomoen multzoan, emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da goi-karguetan.
  - c) Goi-karguak emakumeak dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia, Eustat, HABE eta IVAP erakunde autonomoetan.
  - d) Gizonak emakumeek baino zuzendaritza postu-gehiago betetzen dituzte Eusko Jaurlaritzari atxikitako enpresa eta erakunde publikoetan (% 65 eta % 34,5, hurrenez hurren).
  
- 4. Gasteizko udaleko datu estatistikoaren arabera, hauxe zen udalaren plantillaren egoera 2018an. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
  - a) Gizon bat ere ez zegoen adingabeak zaintzeko lan-utzialdi egoera administratiboan.
  - b) Emakumeen ehunekorik handienak 11. ordainsari-maila zuen (emakume guztien % 21a).
  - c) Emakumeen % 32k, emakume kopuru osotik, % 100etik beherako lanaldia zuen.
  - d) Guztiak zuzenak dira.
  
- 5. Bilakaerari dagokionez, Gasteizko udalaren plantillaren datuak dira hauek. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
  - a) 2011tik 2018ra ez da alde nabarmenik ikusten gizonen eta emakumeen batez besteko adinaren artean.
  - b) 2015etik 2018ra, A1 eta A2 titulazio taldeetako kolektiboan, emakumeen ehunekoa apur bat igo dela ikusten da.
  - c) 2015etik 2018ra bitartean, emakumeen ehunekoa nabarmen igo da, % 7 inguru, herritarren segurtasunaren arloko funtzioak dituzten kolektiboan.
  - d) Udalaren toki-administrazioko plantillan, 1997an % 47a izatetik 2018an % 60a izatera pasa dira emakumeak.

- 6. Espainiako Estatuan genero-berdintasunerako politika publikoen jatorriari gagozkiolarik, adieraz ezazu erantzun zuzena.**
90. hamarkadan genero-berdintasunerako politika publikoak sendotzen hasi ziren, eta Europako zuzentarau garrantzitsuen transposizioa egin zen.
  - Estatuko Gobernuaren 1982tik 1986ra bitarteko agintaldian, genero-berdintasunaren agenda publikoa protagonismoa hartzen hasi zen, hainbat arrazoi tarteko: mugimendu feministaren eta “Estatuko Feminismoa” deitutakoaren presioa eta Europartzeko prozesu hasi berria, besteak beste.
  - Genero-berdintasunerako lehen plan publikoak abiatzearekin bat, beren beregi emakumeei zuzendutako programa okupazionalak ezarri ziren, eta Europako Gizarte Funtzak finantzatu zituen.
  - Guztiak zuzenak dira.
- 7. Genero-berdintasunaren aldeko esku-hartze publikoaren bilakaera orokorrean, hainbat estrategia instituzionalizatu eta finkatu dira. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Beren-beregi emakumeekin lotutako politikak, gizonekiko dauden aldeak arintzera bideratuta.
  - LGTBI ikuspegia txertatzea genero-berdintasunaren arloko politiketan.
  - Emakume eta gizonen arteko berdintasuna ordenamendu juridikoan.
  - Genero-berdintasun planetako eta genero-mainstreamingeko estrategiak konbinatzea
- 8. Genero zeharkakotasunaren edo genero-mainstreamingaren strategiaren jatorriari gagozkiolarik, aukera ezazu erantzun zuzena.**
- Mainstreaming* kontzeptua Nazio Batuetako Emakumearen Egoera Juridikoaren eta Sozialaren Batzordeak proposatu zuen hasiera batean, 1982an.
  - Europar Batzordearen programetarik, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Europar Batasuneko Epe Ertainerako III. Ekintza Programan (1991-1995) antzeman da estrategia hori lehen aldiz, eta IV. programak erabat bereganatu zuen.
  - Nazio Batuen Emakumeei buruzko Nazioarteko IV. Konferentzian onetsitako ekintza plataforman estrategiatzat hartzen da (Beijing, 1990).
  - Europar Batasuneko edo Maastrichteko Tratatuak da komunitateko jarduerak guztietan genero-desberdintasuna desagerrarazteko helburua barne hartzen duen lehen tratatua.
- 9. Ekintza positiboari gagozkiolarik, aukera ezazu erantzun OKERRA:**
- “Ekintza positiboa” europar adierazpen bat da, eta Estatu Batuetan edo beste lurralde anglofono batzuetan (Britainia Handia ez) “baiezko ekintza” bezala (*affirmative action*) ezagutzen denaren baliokidea da.
  - Ekintza positiboa, lehen aldiz, zuzenbide komunitario eratorrian aitortu zela jotzen da, hain zuzen ere, Kontseiluak, enplegu, prestakuntza, sustapen profesional eta lan baldintzekin zerikusia duten gaitan gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunari buruz emandako zuzentarauaren bitartez.
  - Botere publikoek bakarrik hartu ahalko dituzte ekintza positiboko neurriak eta, horrenbestez, pertsona fisiko eta juridiko pribatuek ezingo dituzte horiek inplementatu.
  - Estatuko zein erkidegoko berdintasunaren alorreko berriazko legediak ezartzen duenez, botere publikoek bizitzaren esparru desberdinetan gertatzen diren desberdintasunak desagertzera edo murriztera bideratutako berriazko eta aldi baterako neurriak hartuko dituzte.
- 10. Baieztapen hauek azpimarratu egiten dute genero-mainstreamingaren balio erantsia. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Gobernu hobe batera bideratzen du.
  - Emakumeak zein gizonak tartean sartzen ditu eta giza-baliabideen erabilera osoa egiten du.
  - Gizartean nagusi den kulturako genero-desberdintasunaren arazoa ikusgai jartzen du.
  - Erantzun guztiak zuzenak dira.

**11. Hainbat azterlanek abiaburuko tentsio edo kontraesanak azalarazten dituzte genero-mainstreamingaren estrategian. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Kontraesan inherentea, desberdintasunak modu sistematikoan erreproduzitzen dituen erakunde baten eta genero desberdintasunari aurre egiteko helburuaren artean.
- b) Genero-mainstreamingaren estrategia ezartzeak berekin dakar garapen handiko berariazko politikek baino baliabide ekonomiko gehiago gaitu beharra.
- c) Berezko tentsioa, demokraziarantz begiratzen duten mainstreamingeko alderdien eta adituak izateari pribilegioa ematen dietenen artean.
- d) Genero desberdintasunaren egiturazko izaerak adierazten du desberdintasun hori berdintasun-politikak ezarri behar dituen erakundeko pertsonengan ere badela, berez.

**12. Interseksionalitateari gagozkiolarik, adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) Diskriminazio-arrazoi bakarra ez dagoela jotzen du interseksionalitateak.
- b) Interseksionalitate kontzeptua herritarren dibertsitatea aitortzeko une aldakor batean sortu da.
- c) Interseksionalitateak egoera bat deskribatzen du, non diskriminaziorako hainbat arrazoi egoteak diskriminazio modu bakar eta berri bat sortzen duen, eta horrek berekin dakarren arrazoi horiek bakoitza bere aldetik aztertu ezina.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**13. “Diskriminazio anizkuna” kontzeptuari gagozkiolarik, adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) Diskriminazio anizkun kontzeptuak diskriminatzeko hainbat arrazoik batera jokatzeko dutenean gertatzen den diskriminazioari egiten dio erreferentzia.
- b) Azterlanak bat etorri ohi dira diskriminazio anizkuna honela sailkatzean: diskriminazio anizkun gehigarria (edo bikoitza, edo konposatua edo metatua), eta diskriminazio anizkun interseksionala.
- c) Diskriminazio anizkun metatuan, diskriminaziorako hainbat arrazoi ematen dira aldi berean, eta arrazoi bat beste bati gehitzen zaio, zama gehigarria sortuz.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**14. Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloko berariazko legediak honakoa xedatzen du sexu arrazoiengatiko zuzeneko eta zeharkako diskriminazioaren inguruan. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatzen duenez, laneko sexu-jazarpena sexu arrazoiengatiko zuzeneko diskriminaziotzat jotzen da.
- b) Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatzen duenez, ez dira sexu arrazoiengatiko diskriminaziotzat joko sexuei arrazoi biologikoengatik babes berezia emateko beharrezkoak diren neurriak, nahiz eta tratamendu desberdina planteatu, beti ere justifikazio objektiboa eta zentzuzkoa badute.
- c) Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatzen duenez, negozio juridikoetan, sexuan oinarritutako diskriminazio diren edo sortzen duten egintza eta klausulak deusez eta ondorenik gabekotzat jo ahalko dira.
- d) Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatzen duenez, edonork eskatu ahal izango die auzitegiei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea babestea, sexu arrazoiengatiko ustezko diskriminazioa gertatu deneko harreman hori amaitu ondoren ere.

**15. Ordenamendu juridikoan berdintasunaren eta sexu arrazoiengatiko diskriminaziorik ezaren printzipioari gagozkiolarik, aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 9.1 artikulua sexuagatiko diskriminazio ezarako eta berdintasunerako eskubidea aldarrikatzen du, Espainiako Konstituzioan xedatutakora igorritz.
- b) Emakume eta gizonen arteko berdintasuna giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan aitortutako printzipio juridiko unibertsala da, eta testu horien artean emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzei buruzko hitzarmena nabarmentzen da, zein Espainiar Estatuak 1987an berretsi baitzuen.
- c) Amsterdameko Tratatuaren indarrean sartu zenetik, emakume eta gizonen arteko berdintasuna Europar Batasuneko funtsezko printzipiotzat jotzen da formalki.
- d) Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ondare komunitario garrantzitsua garatu da Erromako Tratatuaren 119. artikulua babestean.

**16. Giza eskubideen arloko nazioarteko hitzarmen hauek bere baitan hartzen dute berdintasunaren eta sexu arrazoiengatiko diskriminaziorik ezaren printzipioa. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Ekonomia-, gizarte-eta kultura-eskubideen nazioarteko itunak.
- b) Familien eskubideen zein familiak babesteko eskubideen nazioarteko itunak.
- c) Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko hitzarmenak.
- d) Eskubide zibilen eta politikoen nazioarteko itunak.

**17. Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko hitzarmenak hau xedatzen du. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Emakumearen Aurkako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeak eskatu egin ahalko du estatu kideek hitzarmena gauzatzeko hartutako neurriei eta horien aurrerapenei buruzko txostena aurkezteko.
- b) Emakumearen Aurkako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordeko kideak eskua altxatuta aukeratzen dira, estatu kideek izendatutako pertsonen zerrenda batetik.
- c) Hitzarmenean xedatutakoak ez die eragingo estatu kide batek emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko duen legediaren xedapen baliagarriagoei.
- d) Hitzarmenak beren beregi xedatzen du estatu kideek emakumeen berdintasunerako neurri egokiak hartuko dituztela, nekazaritza-kreditu nahiz maileguak eskuratzeko eskubideari dagokionez.

**18. 2030 Agendako garapen jasangarriko helburuetan, genero-berdintasunari gagozkiolarik, aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Garapen jasangarriaren 17 helburuen artetik, 5.a genero-berdintasuna lortzera eta emakume nahiz neska guztiak ahalduzera bideratuta dago.
- b) Garapen jasangarriaren 5. helmugetako bat neskatila gehiagok doako heziketa, ekitatiboa eta kalitatekoa izatera bideratutako dago.
- c) Garapen jasangarriaren 5. helmugetako bat emakumeek teknologia instrumentala hobeto erabiltzera bideratuta dago, bereziki informazioari eta komunikazioari dagokiena.
- d) Garapen jasangarriaren 5. helmugetako bat ordaindu gabeko zainketa lanak eta etxeko lanak aitortu eta baloratzera bideratu dago.

**19. 2030 Agendako garapen jasangarriko 5. helburuaren adierazleei gagozkielarik, aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Emakumeek parlamentu nazionaletan eta tokiko gobernuetan betetzen dituzten lanpostuen proportzioa.
- b) Genero-berdintasunaren eta emakumeen ahalduzaren jarraipenerako eta baliabide publikorako sistemak dituzten herrialdeen proportzioa.
- c) Amen hilkortasun-indizea.
- d) Mutilazio genitala pairatu duten 15 urtetik 49 urtera bitarteko neska eta emakumeen proportzioa, adinaren arabera.

**20. Emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa Erromako Tratatuen 119. artikuluan sartu zen lehen aldiz, eta hortik hasita zenbait tresna juridiko komunitario garatu ziren. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Kontseiluaren 75/177/EEE Zuzentaraua, 1975eko otsailaren 10ekoa, gizon eta emakume langileen arteko ordainsari-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.
- b) Kontseiluaren 76/207/EEE Zuzentaraua, 1976ko otsailaren 9koa, enplegu, prestakuntza eta lanbide-sustapenera eta lan baldintzei dagokienez gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.
- c) Kontseiluaren 89/391/EEE Zuzentaraua, 1989ko ekainaren 12koa, nekazaritza-jardueretan gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.
- d) Kontseiluaren 86/378/EEE Zuzentaraua, 1986ko uztailaren 24koa, gizarte segurantzaren lanbide-erregimenetan gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.

- 21. Europako zein tratatuk jasotzen du, lehen aldiz, gizon eta emakumeen arteko ordainsari-berdintasunaren printzipioa balio bereko lan baterako? Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Europako Ekonomia Erkidegoa Eratzeko Tratatuak (1957ko martxoaren 25ekoa).
  - Europar Batasunaren Tratatuak (1992ko otsailaren 7koa).
  - Amsterdameko Tratatuak (1997ko urriaren 2koa).
  - Lisboako Tratatuak (2007ko abenduaren 13koa).
- 22. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2016-2019ko konpromiso estrategikoak honakoak xedatzen ditu: emakumeek lan merkatuan duten parte hartzea handitzea, eta emakumeek eta gizonen independentzia ekonomiko berbera izatea bultzatzea. Helburu hauek proposatu dira horretarako. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Dibertsitate funtzionala duten emakumeen integrazioa hobetzea lan merkatuan.
  - Europar Batasunaren helburua lortzea, hau da, 2020an emakume eta gizonen % 75a lan-merkatuan aritzea.
  - Bartzelonaren helburuak lortzea, neska-mutilen zainketaren arloan.
  - Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea ikerkuntzaren arloan.
- 23. Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hainbat funtzio ezartzen dizkie emakume eta gizonen arteko berdintasun-politikak sustatu, plangintza egin eta ebaluatzeaz arduratzen diren toki administrazioetako atal administratiboei. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Genero-ikuspegia txertatzea, toki administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan, eta maila eta fase guztietan.
  - Betetzen dituzten funtzio edo dituzten helburuak direla eta, emakume eta gizonen arteko berdintasunari laguntzen dioten udalerriko erakunde publiko zein pribatuentzako aholkularitza.
  - Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloko prestakuntzako plana edo programa ezartzea toki administrazioetako langileentzat.
  - Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzen duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak sortu eta egokitzeko proposamenak egitea eta sustatzea.
- 24. Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatzen duenez, unibertsitateko irakaskuntzen esparruko prestakuntza eta ikerketa arloko deialdietan, hezkuntza-administrazioak baloratu egingo ditu, bereziki, honakoa kontuan hartzen duten proiektuak. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Ikerketa-taldeetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua izatea.
  - Proiektuak emakume eta gizonen arteko desberdintasuna ulertzen laguntzea.
  - Ikerketaren arlo desberdinetako proiektuetan emakumeen lidergoa izatea.
  - Proiektuak desberdintasunak ezabatzeko eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak izatea.
- 25. Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak arautu egiten ditu gizon eta emakumeen berdintasunaren arloko arau hausteetarako hainbat zehapen. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Arau-hauste arinek 1.000 euro arteko isuna izan dezakete.
  - Arau-hauste larriek zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten zentroyen edo zerbitzuen titulartasuna izateko gaitasungabetu dezakete pertsona fisiko edo juridiko erantzulea, urte batetik hiru urte arterako eperako.
  - Arau-hauste oso larriek bi eta sei urte arteko epean euskal administrazio publikoen edozein laguntza publiko eskuratzeko debekua izatea ekar dezakete.
  - Arau-hauste oso larriek 60.000 euro arteko isuna izan dezakete.
- 26. Sektore pribatuan berdintasunaren eta sexu arrazoiengatik diskriminazio-ezaren printzipioen defentsari gagozkiolarik, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak –otsailaren 16ko 3/2012 legeak aldatua— ikerketa-prozesua ezartzen du, eta prozeduraren hasiera arautu. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Kexa eragin zuten jokabideak edo gertakariak amaitu zirenetik urtebeteko epea igaro bada, ezin da kexa onartu.
  - Kexa idatziz aurkeztu behar da, eta arrazoitua izan behar du; ezin da kexa ahoz aurkeztu.
  - Kexa alde zuzenetik baloratu egin behar da, onar daitekeen ebazteko.
  - Sexu-gatik diskriminazioa jasaten duela uste duen pertsona-talde batek kexa aurkez dezake.

- 27. Otsailaren 18ko 4/2005 Legearen implementazioaren bigarren bosturtekoaren (2010-2015) ebaluazio kuantitatiboko datuei gagozkielarik (ebaluazio unean jasotakoak), aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Euskal udalen % 47k badu genero-berdintasunerako plana.
  - Osalanen, Osakidetzan, Haben eta Euskal Trenbide Sarean badira berdintasunerako administrazio atalak.
  - Dirulaguntza-deialdietan, oso gutxitan sartzen da entitate hartzaileek genero-berdintasun arloan izandako jarduera edo ibilbideari buruzko irizpidea.
  - Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko zuzendaritza-kontseiluetan emakumeak % 30 baino gutxiago dira.
- 28. Botere publikoek berdintasunaren alorrean duten jarduera-printzipioen garapenari gagozkielarik, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen implementazioaren ebaluazio kualitatiboak (bigarren bosturtekoa, 2010-2015) jaso egiten du ebaluazioan parte hartu zuten pertsonen balorazioa. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Legeak ez du lortu nagusiki kolektibo eta pertsona hegemonikoen premiei erantzuten dien konfigurazioa gainditzea.
  - Ekintza positiboak erresistentzia sortzen jarraitzen du administrazio sektore batzuetan, baina inplementatzen ari den neurrian onartuz doa, normaltasun gehiagorekin edo gutxiagorekin.
  - Arau-garapenetako genero-inpaktuaren txostenak ez dira genero ikuspegiaren txertaketan aurrera egitea lortzen ari, genero-ikuspegia lehentasuneko zat jotzen ez duten administrazio arloetan.
  - Emakume eta gizonen arteko ordezkartza orekatuagoa izatean aurrera egin dela nabari da administrazioan eta partaidetza politikoan, hauteskunde-zerrenda paritarioen bidez.
- 29. Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezarri egiten du enpresek zein kasutan egin eta aplikatu behar duten emakume eta gizonen arteko berdintasun plana. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- 50 hamar langile edo hortik gora dituzten enpresak badira.
  - Enpresako langileen legezko ordezkartzak hala adosten duenean.
  - Prozedura zigortzaile batean lan-agintariak hala erabakitzen duenean, zehapen erantsien orde.
  - Aplikagarri den hitzarmen kolektiboan hala ezartzen denean.
- 30. Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak hauxe ezartzen du ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko tratu-berdintasunaz. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Jendaurreko ondasunak edo zerbitzuak hornitzen dituzten pertsona juridiko guztiek, zerbitzu horiek familiaren edo bizitza pribatuaren eremuaren barruan eskaintzen direnean, tratu berdintasunaren printzipioa bete beharko dute euren jardueretan eta transakzioetan.
  - Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko ez dira onargarriak izango tratu desberdintasunak, nahiz eta legitimoa den asmoa izan, eta asmo hori lotzeko bideak egokiak eta beharrezkoak izan.
  - Debekatuta dago aseguru-kontratuak edo antzeko finantza-zerbitzuen kontratuak egitea, baldin eta, halakoetan, sexua prima eta prestazioak kalkulatzeko faktoretzat hartzeagatik, desberdintasunak sortzen badira aseguraturako pertsonen prima eta prestazioetan.
  - Haurdunaldiarekin eta amatasunarekin zerikusia duten kostuek justifikatu egin ahalko dituzte gizabanakoen aldeak prima nahiz prestazioetan, beti ere indarrean dagoen legediarekin bat.
- 31. Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak hauxe ezartzen du berdintasun-printzipioaz eta diskriminazioaren aurkako babesaz. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Edonork eskatu ahal izango die auzitegiei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea babesteko.
  - Jazarpena jasan duen pertsonak baino ez du legitimaziorik izango, sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko auzietan.
  - Berdintasunerako eskubidea defendatzeko prozesu zibiletan, sozialetan eta administrazioarekiko auzibide prozesuetan, interes legitimodun pertsona fisiko eta juridikoek izango dute parte hartzeko gaitasuna eta legitimazioa.
  - Sexu arrazoiengatik balizko diskriminazio egoeren inguruko prozedura judizialetan, penalak barne, demandatuari dagokiko diskriminazio-eza frogatzea.



- 32. Emakumeek eta gizonen tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako Europako Gutunari gagozkiolarik, aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Berdintasunerako Europako Gutuna egitean, Europako Batzordearen babesa izan zen, aukera berdintasunerako ekintza komunitarioko 5. programaren baitan (2001-2006).
  - Europako udalerrien eta eskualdeen kontseiluak eta bere bazkideek egin eta sustatu zuten Berdintasunerako Europako Gutuna.
  - Berdintasunerako Europako Gutuna izenpetzen duen erakunde edo entitateak konpromiso hau hartzen du: sinatzen duenetik 18 hilabeteko gehieneko epean berdintasunerako ekintza plana egitea eta egokitzea – aldezturik ez badu–, eta planak gauzatzeko beharrezkoak dituen baliabideez hornitzea.
  - EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarteak Berdintasunerako Europako Gutunarekin bat egin zuen.
- 33. Emakumeek eta gizonen tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako Europako Gutuna berresten duten tokiko gobernuek euren jardunetan funtsezko printzipio hauek ardatz izateko konpromisoa hartzen dute. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Erabakiak hartzean emakume eta gizonen parte-hartzea orekatua izatea.
  - Diskriminazio anizkuna eta desabantaila kontuan hartzea.
  - Politikak diseinatzean, emakumeen elkarteek parte hartzeko prozesuak izatea.
  - Genero-estereotipoak ezabatzea.
- 34. Emakunderen zuzendaritza-kontseiluaren funtzionamenduari gagozkiolarik, adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Kontseiluko kideek aparteko bilkura eskatuz gero – halako bilkurak eskatzeko behar duten kideen portzentajea beteta eskatuz gero–, kontseiluaren lehendakariak eskaera jaso eta hurrengo 20 egunen barruan deitu behar du bilkura.
  - Ohiko bilkuretarako deia bilkuraren eguna baino 15 egun lehenago egin behar da, gutxienez.
  - Kontseiluburuak bilkura premiazkotzat jotzen badu, nahikoa izango da bilkura baino lau egun lehenago egitea deialdia.
  - Bigarren deialdia kontseiluaren bilera-ordua baino ordu erdi beranduago hasiko da.
- 35. Honakoek osatzen dute Emakunderen zuzendaritza-kontseilua: Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Emakunderen idazkariak, kontseiluko idazkari zereginetan. Hitza eta botoa izango ditu.
  - Eusko Legebiltzarrak izendatutako lau pertsonak.
  - Autonomia Erkidegoko Administrazioan hezkuntza, enplegu, osasun, industria, kultura eta gizarte gaien arloetan eskumenak dituzten sei sailburuordek.
  - 21 kidek osatzen dute zuzendaritza-kontseilua.
- 36. Hauek dira Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusiari dagozkion funtzioak. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Emakunderen administrazioa zuzentzea.
  - Emakunderen gastuak baimentzeko eskumena erabiltzea, baldin eta eskumen hori legez beste organo bati ez badagokio.
  - Emakunderen kudeaketari eta funtzionamenduari buruzko urteko oroitidazkia egitea.
  - Emakunderen zerbitzuen jardueren kudeaketa eta barne-ikuskapena zuzentzea.
- 37. Emakunderi atxikita dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak funtzio hauek ditu. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Euskal administrazio publikoen artean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko esperientziak eta proposamenak partekatze espazioa izatea.
  - 4/2005 Legearen eta bere 15. artikuluan araututako berdintasun planen erabilpen eraginkorraren ardura duten erakunde eta organoekin elkarlanean aritzea.
  - 4/2005 Legean ezarritakoa aplikatzearen ondorioz, euskal administrazioen artean sor daitezkeen eskumen-arazoak konpontzeko irizpideak zehaztea.
  - 4/2005 Legearen betetze, garapen eta erabilpenaren jarraipena egitea, Lehenengo Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat.



- 38. Emakunderi atxikita dagoen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen osakerari eta batzorde horretako kideen funtzioei gagozkielarik, adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Eusko Jaurlaritzaren izenean, administrazio publikoaren, enpleguaren, gizarte gaien eta ingurumenaren arloetan ardura duten lau sailburuorde izango dira batzordeko kide.
  - Batzordeko idazkariak hitza du baina botorik ez.
  - Batzordeko kideek boto partikularra eman ahal dute, gehiengoaren iritziarekin bat etorrita ala ez.
  - Batzordeko idazkariari dagokio batzordearen bilkurak deitzea.
- 39. Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzua arduratu da plan hau bultzatu, koordinatu eta jarraipena egiteaz: Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Plana (2005-2007).
  - Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Udal Plana (2009-2011).
  - Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Udal Plana (2013-2015).
  - Genero-berdintasunerako I. Plana Gasteizko Udaleko enplegu publikoaren eremuan (2016-2018).
- 40. 2015-2019 agintaldian, Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzua sail honi atxikita dago. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Alkatetza Saila.
  - Lehendakaritza Saila.
  - Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila.
  - Herritarrentzako Zerbitzuen Saila.
- 41. Gaur egun Berdinsareari —Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea— atxikita daude. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Vitoria-Gasteiz (Araba).
  - Zuia (Araba).
  - Loiu (Bizkaia).
  - Zumaia (Gipuzkoa).
- 42. Hala eskatzen eta baldintza hauek betetzen dituztelarik atxiki ahal izango zaizkio euskal udalerriak Berdinsareari —Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea—. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Berdintasunaren arloan esperientzia edo gaitasun espezifikoak duten teknikariak edukitzea.
  - Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko plan espezifiko bat edukitzea.
  - Emakumeen elkarteekin eta inplikaturako beste entitate batzuekin partaidetza- eta lankidetzaharremanak ezartzea.
  - Beren funtzioak aurrera eramateko beharrezko diren baliabide material eta ekonomikoak aurrekontuetan jaso eta zehaztea.
- 43. Toki administrazioan berdintasun-teknikariak hornitzeko oinarritzko eredu bat adostu zuten Emakundek, Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak, EHAk eta EUDELeK, eta berariazko sarrera-betebehar hauek finkatu. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Gutxienez 2 urteko lan-esperientzia, berdintasun-teknikari gisa.
  - Genero-berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroa, gutxienez 150 ordukoa, erakunde ofizial batek egiaztatua.
  - Berdintasun-teknikariei dagozkien zereginak egin izana, gutxienez 2 urtez, eta hala egiaztatzea lan-bizitzaren ziurtagiriaren bitartez, eta entitate kontratatzailearen ziurtagiriaren bitartez —zereginak eta dedikazioa adierazi beharko dira bertan—.
  - Erantzun guztiak zuzenak dira.

- 44. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- 2018ko ekainaren 19an onetsi zuen Gobernu-kontseiluak VII. Plana.
  - Eusko Legebiltzarraren XI. legegintzaldia da VII. Planaren indarraldia.
  - Euskal botere publikoek VII. planaren baitan egindako jardueren memoriari buruzko urteko ebaluazio-txostena eta amaierako ebaluazio global bat egingo ditu Emakundek.
  - VII. plana egiteak gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 17. artikuluan ezarritako aginduari erantzuten dio.
- 45. EAEko emakumeen berdintasunerako VII. planaren indarraldia amaitzen denean, eraginaren ebaluazioa egingo du Emakundek. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Eraginaren ebaluazioa sintesi estrategikoko adierazle batzuen bitartez egingo da.
  - Eraginaren ebaluazioan, Emakundek prestatutako Genero Berdintasunaren Indizea erabiliko da.
  - Genero Berdintasunaren Indizea Euskal Estatistika Planaren barruko eragiketa da, EUSTATEk kalkulatu.
  - Genero Berdintasunaren Indizeak oinarritzko 31 adierazle dauzka eta horiek VII. Planeko I. eta II. ardatzetako programen eragina ebaluatzea ahalbidetzen dute.
- 46. Genero-berdintasunerako udal ordenantzaren xedatze-zatiak atal hauek jasoko ditu. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Aplikazio-eremua.
  - Erakunde-antolamendua.
  - Oinarri juridikoak.
  - Udal politikan genero-ikuspegia integratzearekin zerikusia duten alderdiak.
- 47. Biztanle-kopuru handiko udalerrietan, hala nola Gasteizen, genero-berdintasunerako udal ordenantza onesteko prozesua honako hau da. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Tokiko Gobernu Batzarrak onetsiko du genero-berdintasunerako ordenantzaren proiektua.
  - Udalbatzak behin-behineko onespina emango dio genero-berdintasunerako ordenantzari.
  - Udalbatzak behin-behineko onespina eman ondoren, 20 eguneko informazio-aldia eta entzunaldia izango da, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.
  - Informazio-aldian —entzunaldian— erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betikotzat joko da hasierako onespina, eta, beraz, ez da beharrezkoa izango udalbatzak behin betiko onespina ematea.
- 48. Bukaerako ebaluazioaren prozesuko adierazleak lantzeko aintzat hartu beharreko hainbat alderdi ezartzen ditu Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planak (2018-2021). Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Informazio-bilketarako tresnen baliagarritasuna.
  - Tartean dauden agenteek kudeaketa-sistemeekin duten asebetetze-maila.
  - Planaren kudeaketa-sistemak Udaleko barne-egituraren aldatetara egokitzeko duen gaitasun-maila.
  - Planak arrakasta edukitzen lagundu duten elementuak.
- 49. Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planaren (2018-2021) 3. ildoak —ahalduntze feminista— hainbat helburu estrategiko ezartzen ditu. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiboari laguntzea.
  - Balioen aldakuntza eta genero-rol eta -estereotipoen desagertzea bultzatzea.
  - Gasteizen berdintasunerantz abiatzearekin dagoen gizarte-konpromisoa babestea.
  - LGTBI pertsonen ahalduntze pertsonal eta kolektiboari laguntzea.
- 50. Genero-berdintasunerako Planaren jarraipena haren kudeaketa parte da. Zer ulertzen da jarraipentzat? Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Analisi-prozesu bat da, planaren gauzatze-aldiaren erdian egiten dena.
  - Espero bezala gauzatzen ari den egiaztatu nahi da.
  - Lortutako emaitzak aztertzen ditu, helburuekin alderatuta.
  - Erantzun guztiak zuzenak dira.

- 51. Genero-berdintasunerako plan baten ebaluazioak hainbat faktore azter ditzake; besteak beste, barne-koherentzia. Zer aztertzen da, barne-koherentziari dagokionez? Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Detektatutako premien arabera esku-hartzeko estrategia.
  - Programazioaren logika.
  - Helburuen leheneste koherentea eta jarduera eta emaitzekin duen erlazioa.
  - Plana bultzatzearen ardura duen berdintasunerako administrazio-atalaren funtzionamendua.
- 52. Genero-ikuspegia kontuan hartzen duten aurrekontu publikoen inguruan, aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Prozesu edo tresna-multzo horren bitartez aztertzen da aurrekontu publikoek dituzten eragin desberdinak emakume eta neskentzat, batetik, eta gizon eta mutikoentzat, bestetik.
  - Jatorrian, eta autonomia erkidegoen alorrean, azpimarratzekoak izan ziren EAEn eta Andaluzian garatutako esperientziak.
  - Aurrekontuko diru-sarreraren analisia genero-ikuspegia kontuan hartzen duten aurrekontu publikoen analisiaren oinarriko elementua da, bertan islatzen delako nola laguntzen duten gizonetako eta emakumeetako gizarte-aberastasuna sortzen eta politika publikoak finantzatzen.
  - Hegoafrikako gobernuan hasi ziren genero-ikuspegia kontuan hartuta gobernu-aurrekontuak egiten, 1980ko hamarkadaren erdialdean.
- 53. Metodologia desberdinak daude genero-ikuspegia kontuan hartzen duten aurrekontu publikoak osatzeko; labur bada ere, hemen horiek osatzeko giltzarri batzuk aipatzen dira. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Gizon eta emakumeek aurrekontu publikoari egindako ekarpenaren azterketa, enplegu ordaindu eta ordaindu gabekoaren, kontsumoaren eta abarren bitartez.
  - Gizon eta emakumeen behar praktikoen eta estrategikoen azterketa
  - Egindako gastuaren azterketa, gizon eta emakumeengan izandako eragina aintzat hartuta.
  - Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 54. Generoaren arabera eraginaren ebaluazioaren jatorriari eta aurrekariari gagozkielarik, adieraz ezazu erantzun OKERRA.**
- 1994an du jatorria. Ingurumen-eraginaren ebaluaziorako tresna bat egokitu zen, genero-berdintasunaren alorrean erabiltzeko, Berdintasunerako Holandako Dibilazioak eskatuta.
  - Estatuan, Espainiako Gobernuak egingo dituen arauetan genero-eraginaren ebaluazioa txertatzeko neurriak ezarri zituen urriaren 13ko 30/2003 Legeak.
  - Autonomia-erkidegoetan, Andaluzia izan zen generoaren arabera eraginaren ebaluazioa ezarri zuen lehena, 2000. urtean.
  - EAEn, 4/2005 Legearen II. tituluan dago jasota generoaren arabera eraginaren aldeko aurreko ebaluazioa.
- 55. Eusko Jaurlaritzan, generoaren arabera eraginaren ebaluazioari gagozkielarik, adieraz ezazu erantzun OKERRA:**
- Generoaren arabera eraginaren ebaluazioa *ex-ante* ebaluazioa da.
  - Administrazio-egintzen proposamenetan, enplegu publikorako eskaintzen deialdiei eta lekualdatze-lehiaketei bakarrik erantsi behar zaie generoaren arabera eraginaren txostena.
  - Emakundek, 10 eguneko epean, txosten lotesle bat egin beharko du, egiaztatzeko generoaren arabera eraginari buruzko txostena indarrean dagoen araudiaren arabera egin dela, eta, behar izanez gero, hura hobetzeko proposamenak egiteko.
  - Generoaren arabera eraginaren txostenak zati hauek ditu: arau edo administrazio-egintzaren proiektuaren deskribapen orokorra, generoaren arabera eraginaren ebaluazioa, eta desberdintasunak ezabatu eta genero-berdintasuna sustatzeko neurriak.

- 56. Ezingo dute dirulaguntza publikorik eskuratu kideak aukeratzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexu-arrazoiengatik diskriminatzen duten edo arrazoi horregatik zigor administratibo edo penala jaso duten elkarteek. Horretarako, legedi hau aplikatu beharra dago. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.
  - Elkartzeko eskubidea arautzen duen Lege Organikoa.
  - Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea.
  - Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 57. Kontratazioko genero-klausulei dagokienez, hau ezartzen du Sektore Publikoko Kontratuen Legeak: Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Kontratuak esleitzeko irizpideen artean, kontratuaren xedeari lotutako genero-berdintasunaren arloko klausulak sartu ahal izango dira.
  - Administrazio baldintzen agirian eskaintzen arteko berdinketak hausteko berariazko irizpideak ezarri ez badira, hurrenkera honi jarraituko zaio: desgaitasuna duten edo gizarte-bazterkerian dauden pertsonen portzentaje handiagoa izatea plantillan, aldi baterako kontratuen portzentaje txikiagoa izatea plantillan, emakumeen portzentaje handiagoa izatea plantillan.
  - Administrazio baldintzen agirian genero-berdintasunaren arloko berariazko irizpideak ezarri ahal dira, eskaintzen arteko berdinketak hausteko behar badira aplikatzeko, eta ez dira ezinbestean kontratuaren xedeari lotuak izan behar.
  - Gizarte arloko ezaugarri espezifikoak dituen zerbitzu bat kontratatzean, kontratazio-organoak etiketa berezi bat eskatu ahalko du preskripzio teknikoan atalean, zerbitzuak genero-berdintasunaren arloan eskatutakoak bete izanaren proba gisa.
- 58. Gasteizko Udalak kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibideak (2016) lehenasunezko kolektibo hauek ezartzen ditu, kontrataziorako. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Genero-indarkeria jasaten duten eta emakume langabeak.
  - Lanbide-kalifikazioa duten —DBHtik gorakoa edo baliokidea— eta alde zuzeneko lan-esperientziarik ez duten edo 12 hilabetetik beherako lan-esperientzia duten 35 urtetik beherako pertsonak.
  - Guraso bakarreko familien titularrak eta langabeak diren, eta langabezia gutxienez 12 hilabeteko aldi batean inskribatuta daramaten 35 urtetik beherako emakumeak.
  - Luzaroko langabe gisa inskribatuta dauden 35-45 urteko pertsonak.
- 59. Gasteizko Udalak kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibideak (2016) ezartzen du entitate lizitatuak aurkeztutako eskaintzen balorazioan honako hau baloratu ahal izango dela. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Gehienez puntuazio osoaren % 15era arte, bidezko merkataritzako produktuak erabiltzeko konpromisoa bere egiten duten eskaintzak.
  - Gehienez puntuazio osoaren % 25era arte, lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako pertsona gehiago hartzeko konpromisoa hartzen duen erakunde lizitatuak.
  - Entitate lizitatuak enpleguaren arloko genero-berdintasunerako programa bat diseinatu eta aurkeztea, eta kontratua gauzatzeko hori aplikatzeko konpromisoa hartzea.
  - Gehienez puntuazio osoaren % 25era arte, erakunde lizitatuak aurkeztutako eskaintzan genero-berdintasuna sustatzea.
- 60. Gizonak genero-berdintasunaren helburuan inplikatzeko sustatzen duten ekimenei gagozkielarik, aukera ezazu erantzun OKERRA:**
- “Berdintasunaren aldeko gizonak” lehenengo programa instituzionala 1999an jarri zen martxan, Jerez de la Fronterako Udalean.
  - Gazteak Berdintasunean 2.0 proiektuak nerabe eta gazteen —bereziki mutilen— inplikazioa sustatzen du, genero-berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren kontra, teknologia berrietan oinarritutako heziketa-tresnak erabiliz.
  - “Begizta zuria” kanpaina 2003an sortu zen, Kanadan, gizonak indarkeria matxistaren kontra inplikatzeko.
  - Amuge elkarteak sustatutako “Roma eraldatuz” proiektuak ijito etniako gizonen sentsibilizazioa eta inplikazioa sustatzen du, maskulinitate berrien eraikuntzan.

- 61. “Begara” Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordeak osaera hau du, eta zeregin hauek dituzte bertako kideek. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Batzordeko lehendakariari dagokio bilkuren aktak baimentzea.
  - Genero-berdintasunean eta publizitatean aditua den batzordeko kidea batzordeko lehendakariak izendatzen du.
  - 11 bokalek osatzen dute batzordea.
  - Batzordeko kide diren EHUKo irakasleak errektoreak izendatzen ditu.
- 62. “Begara” Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen bilkura- eta funtzionamendu-erregimena hau da. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Gutxienez hiru hilean behin batzordea.
  - Boto partikularra iragarri ahal izango da, bilkura bukatutzat jo aurretik. Halakoetan, batzordeko lehendakariari bidali beharko zaio, hiru eguneko epean.
  - Bigarren deialdian, lehendakaria gehi batzordeko kideen heren bat presente daudelarik bildu ahal izango da batzordea.
  - Lehendakariak erabaki ahal izango du aparteko bilerak egitea, eta bokalen heren batek eskatzen duelarik ere egingo dira.
- 63. Euskadiko Publizitate eta komunikazio ez sexistarako deontologia- eta autoerregulazio-kodeak berariaz ezartzen du honako hau. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Emakumeak eta gizonak hainbat zeregin eta lanbidetan ikusarazteko premia.
  - Genero-identitateari dagokionez, dagoen emakume- eta gizon-dibertsitatea ikusarazi behar dute publizitate- eta informazio-tratamenduek.
  - Gizon eta emakumeen berdintasuna bultzatzen lagunduko dute publizitate-agentziek eta komunikabideek, beren langileen barne kudeaketan.
  - Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 64. Sexuaren araberako lan-banaketari eta ekoizpen- eta ugalketa-lanari gagozkielarik, aukera ezazu erantzun OKERRA:**
- Etxeko lanaren inguruko eztabaida, jatorriz, tradizio feministak eta pentsamendu marxisten korronteez elikatu zuten, eta, eztabaidatutako gai guztien artean, etxeko lanaren, lan-indarraren eta irabazi kapitalistaren arteko erlazioa dago.
  - Nahiz eta “ekonomia feminista” izendapena 90eko lehenengo urteetan sortu zen, gizon eta emakumeen laneko diferentziekin kritiko ageri diren analisi ekonomikoak 60-70 urteetakoak dira, feminismoaren bigarren uhina sortu zen garaikoak.
  - “Kontziliazioaren ekonomia feminista” deituak “ekoizpen-lana / ugalketa-lana” dikotomiaz harago jotzen du, eta bizitzaren iraunkortasun-prozesuetan zentratzen arreta, eta, hortik abiatuta, sexuaren araberako lan-banaketarekin zerikusia duten kontzeptu klasikoak berrik lantzen ditu.
  - Eustatek Etxeko lanari buruzko kontu satelitean aztertutako azken 20 urteetan (2003-2013), nabarmena da ordaindu gabeko etxeko lanak barne-produktu gordinean (BPGd) hartzen duen ehunekoaren beheraketa (14 puntu inguru).
- 65. Krisi ekonomikoak 2007-2014 aldian izandako eragina aztertu zen Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren *La feminización de la pobreza en Vitoria-Gasteiz* txostenean, eta horrek Gasteizen gizon eta emakumeek jasotzen zituzten kotizaziopeko langabezia-prestazioekin zuen erlazioa. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Joera orokorra berbera izan da gizon eta emakumeentzat: prestazio hori jasotzen zutenen kopuruak gora egin zuen 2007-2010 aldian eta behera krisiaren bigarrena uhinean (2010-2014).
  - Portzentualki, 35-54 adin-tartean nabarmen dira gizonetakoak dira prestazioa gehien jasotzen dutenak, nabarmen gainera, baina 55 urtetik gorakoan artean emakumeak dira, funtsean, prestazio-jasotzaileak.
  - Krisialdi ekonomikoaren jardura-sektore oso maskulinizatueta izan zuen eragin latzak azaltzen du, baina soilik hein batean, prestazio-jasotzaile emakumeen kopurua skoz txikiagoa izatea.
  - Portzentualki, 2007-2014 aldian feminizazio nabarmena atzeman zen derrigorrezko ikasketetatik goragoko mailadun emakume prestazio-hartzaileen artean

**66. Gasteizko Udalaren *La feminización de la pobreza en Vitoria-Gasteiz* txostenean, pobrezia-egoeran dauden emakumeen —berek atenditzen dituztenen— profila zehazten dute gizarte-zerbitzuetako eta hirugarren sektoreko profesionalek. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Adineko emakumeak, beren pentsioekin krisiak eragindako familiako kideak beren kargu hartu behar dituztenak.
- b) Afrikar jatorriko emakumeak, batez ere nigeriarrak.
- c) Denbora partzialeko enplegu oso prekarioa duten emakumeak.
- d) Dibertsitate funtzionala duten emakumeak, Elikagaien Bankuaren erabiltzaileak.

**67. Pertsonen zaintzak genero-berdintasun ezan duen eraginaren inguruan, aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Europako hegoaldeko herrialdeetan zaintza informalak garrantzi handiagoa du, eta hori estuki lotzen da herrialde horietan ageri den Ongizate-estatuaren “eredu mediterraneoarekin”.
- b) Eustaten Denbora-aurrekontuen inkestaren arabera, 1999 eta 2013 bitartean emakumek zein gizonek 9 minututan areagotu egin dute etxeko lagunez arduratzeari eskainitako eguneko gizarte-denbora, eta bere horretan eutsi dio 2013an 1993an zegoen 16 minutuko arrakala berberak.
- c) Eustaten 2013ko Denbora-aurrekontuen inkestaren arabera, pertsona helduak zaintzeko lana modu orekatuagoan banatzen dira goi-mailako ikasketak dituzten gizon eta emakumeen artean, eta ageriago ikusten dira genero-desberdintasunak lehen mailako ikasketak dituztenen artean.
- d) Zaintza-lanetan emandako denboraren azterketari dagokionez, Eustaten Denbora-aurrekontuen inkestak aintzat hartzen ditu zainketaren intentsitatea eta zainketa-lanaren aldiberekotasun-izaera.

**68. Bizitza pertsonalaren, familiarren eta lanaren arteko kontziliazio erantzukidean zenbait aurrerapauso egin dira berriki lege-aldaketa jakin batzuen bidez, jaiotzagatik gurasoentzako baimenen alorrean. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) Langileen Estatutuaren arabera, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, ama biologikoa ez den beste gurasoak 8 asteko baimena izango du, lehengo 6 asteak etengabe eta erditze unetik berehalakoan gozatu ahalko ditu.
- b) Langileen Estatutuaren arabera, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, ama biologikoa ez den beste gurasoak 12 asteko baimena izango du, lehengo 6 asteak etengabe eta erditze unetik berehalakoan gozatu ahalko ditu.
- c) Funtzionarioei dagokienez, Langileen Estatutuaren arabera, 2021etik aurrera, ama biologikoa ez den beste gurasoak 16 asteko baimena izango du, lehengo 6 asteak etengabe eta erditze unetik berehalakoan gozatu ahalko ditu.
- d) Jaiotzagatik ama biologikoa ez den beste gurasoarentzako baimenei dagokienez, herri administrazioetako langileek Langileen Estatutuan xedatutakoaren mende egongo dira.

**69. INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, EAEn, eta emakumeen 2018ko 4. hiruhilekoko langabezia-tasari gagozkiorarik, hauek dira datuak. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Emakumeen langabezia-tasa gizonenaren antzekoa da.
- b) Espainiar nazionalitateko emakumeen langabezia-tasa espainiar nazionalitateko gizonenaren antzekoa da.
- c) Europar Batasunetik kanpoko herrialderen bateko nazionalitatea duten emakume atzerritarren langabezia-tasa espainiar nazionalitateko emakumeena baino 18,7 puntu handiagoa da.
- d) Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea duten emakume atzerritarren langabezia-tasa Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea duten gizon atzerritarrena baino 7 puntu handiagoa da.

**70. Emakunderen “Soldata-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan” txostenak (2018) gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakalaren 2015eko datuak bildu zituen. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Urteko batez besteko irabaziari dagokionez, % 24,3koa da soldata-arrakala.
- b) Urteko batez besteko irabaziari dagokionez, 7.552 eurokoa da soldata-arrakala.
- c) Urteko batez besteko irabaziari dagokionez, 2009koa baino 2,2 puntu txikiagoa izan zen soldata-arrakala 2015ean.
- d) Jarduera-sektoreei dagokienez, zerbitzuen sektorean dago soldata-arrakalarik handiena.



**71. 2020rako Enpleguaren Euskal Estrategiaren norabideetako bat da “lan-eremuan genero arrazoiengatik sortzen diren desberdintasunetan modu progresiboan eragiten jarraitzea”. Horretarako, hainbat orientabide estrategiko ematen ditu. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- Langile-kopurua dela eta berdintasun-plana edukitzera behartuta dauden enpresetan betebeharrak hori betetzen dela egiaztatzeko jarraipen zorrotza.
- Genero-ikuspuntua txertatu duten eta berdintasunaren alorrean aurrera egin duten enpresen praktika egokien garrantzia azpimarratzea.
- Emakumeak industriaren alorrera hurbildu daitezela sustatzea.
- Guztiak zuzenak dira.

**72. Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020rako Enplegu Plan Estrategikoaren inguruan, aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- Genero-ekitatea planaren zeharkako printzipiotzat ezartzen da.
- Genero-berdintasunarekin lotutako berariazko jardueraren ildo bat ezartzen du.
- Berariazko helburutzat ezartzen du planak Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planetan enplegatutako pertsonen % 50 emakumeak izan daitezela bermatzea.
- Berariazko helburutzat ezartzen du planak ekintza positiboa indartzea, laguntza ekonomikoak gutxienez % 10 gehituz kontratazioa eta ekintzaitza sustatzeko zenbait programatan.

**73. Genero-berdintasunerako I. Plana Gasteizko Udaleko enplegu publikoaren eremuan (2016-2018). Hauek dira esku-hartzeko ildoak. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- Berdintasuna etengabeko prestakuntzan, eta berdintasunerako prestakuntza.
- Hauteskunde sindikalak, eta hautagaitzak gizon eta emakumeen presentzia orekatuaren printzipiora egokitzea.
- Azterlanak eta estatistikak berdintasun-printzipioaren arabera egokitzea.
- Hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez-sexista.

**74. Genero-berdintasunerako I. Plana Gasteizko udaleko enplegu publikoaren eremuan (2016-2018) agiriko “Bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa erantzukizunak partekatuz bateragarri egitea” jardueraren ildoan zenbait neurri ezartzen dira. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- Bizitza pertsonala eta lanekoa bateragarri egitea errazten duten neurriak lizentziatzen hartzea, gaur egun baimentzen hartuak dauden arren.
- Aitatasun-baimena lau astetara zabaltzea.
- Bulegoetako lan-egutegian lanaldi zatituan aritzeko eta lanaldia goiz eta arratsaldean banatzeko aukera, beharren arabera.
- Gizonei zuzendutako prestakuntza-ikastaroak, maskulinitate berrien eta erantzukidetasunaren inguruan.

**75. Euskal Mugimendu Feminista deitutakoak antolatutako jardunaldi nagusien historiaren inguruan, aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- Euskal Mugimendu Feministak EHU (Leioa) burutu zituen lehen jardunaldiak, 1977an.
- 1984ko II. Jardunaldi Feministen ostean sortu ziren Emakumeen Asanbladak zenbait herri eta hiritan.
- III. Jardunaldi Feministak EHU (Leioa) burutu zituen lehen jardunaldiak, 1994an.
- 2008an egin ziren IV. Jardunaldi Feministak, Portugaleten, batez ere partaidetza politikoaz, indarkeria sexistaz eta gorputza eta sexualitateaz eztabaidatzeko asmoz.



**76. Zarautzen egindako “Emakumearen arazoa eta Euskadiko Erakundeak” mintegiaren inguruan, aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Mintegiaren ondorio nagusienetako bat EAEn genero-berdintasunaren alorrean eskumenak izango zituen erakunde-organo baten sorrera eskatzea izan zen
- b) Jardunaldiak amaitu zirenean jarraipen Batzorde bat sortu zen, Eusko Jaurlaritzari eta talde parlamentarioei ondorioak azaldu, eta, hartara genero-berdintasunaren alorrean eskumenak izango zituen erakunde bat sortzeko Lege Proposamen bat aurkezteko asmoz.
- c) 1987an Mintegiaren bigarren edizio bat egin zen, eta bertan eman beharreko hurrengo urratsak aztertu zituzten, planteatutako proposamenek jaso zuten erantzun politiko garrantzitsuaren aurrean.
- d) Eusko Legebiltzarraren hirugarren legegintzaldian talde politiko guztiek Lege Proposamen bat abiarazi zuten, EAEn genero-berdintasunaren alorrean eskumenak izango zituen erakunde-organo bat sortzera bideratua.

**77. Diagnostikoan parte hartu zuen elkarteek egoitzarako lokalik edukitzeari dagokienez bizi duten errealitatea erakusten du Berdintasun Zerbitzuak 2015ean egindako *Diagnóstico sobre las necesidades e intereses del Movimiento Feminista y Asociativo de Mujeres de Vitoria-Gasteiz* diagnostikoak. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Elkarteek % 23,80k ez dauka lokalik.
- b) % 23,80k Udalak utzitako lokal bat dauka.
- c) % 35,30k alokatutako lokal bat dauka, erabilera eskusibo edo konpartitukoa.
- d) % 14,28k lokal bat dauka jabegoan, erabilera eskusibo edo konpartitukoa.

**78. Diagnostikoan parte hartu zuen elkarteek beren iturri ekonomikoari dagokienez bizi duten errealitatea erakusten du Berdintasun Zerbitzuak 2015ean egindako *Diagnóstico sobre las necesidades e intereses del Movimiento Feminista y Asociativo de Mujeres de Vitoria-Gasteiz* diagnostikoak. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Baliabide ekonomikoen lehen iturria dirulaguntza publikoak dira elkarteentzat.
- b) Finantzaketa publikoa jasotzen duten elkarteek artean, beren aurrekontu osoaren % 60 eta % 70 artekoa izan ohi da diru hori.
- c) Inongo elkarteek ez du jasotzen entitate pribatuaren dirulaguntzarik.
- d) Elkarteek % 4,3k ez du baliabide ekonomikorik.

**79. Udal hauteskundeetan aurkezten diren hautagaitzek hau izan beharko dute kontuan. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) Gutxienez % 50 emakumeak izan beharko dute, eta proportzio horri eutsi beharko zaio zerrenda osoan, eta bost postuko tarte bakoitzean.
- b) Gutxienez % 50 emakumeak izan beharko dute, eta proportzio horri eutsi beharko zaio zerrenda osoan, eta sei postuko tarte bakoitzean.
- c) Gutxienez % 40 emakumeak izan beharko dute, eta proportzio horri eutsi beharko zaio zerrenda osoan, eta bost postuko tarte bakoitzean.
- d) Gutxienez % 40 emakumeak izan beharko dute, eta proportzio horri eutsi beharko zaio zerrenda osoan, eta sei postuko tarte bakoitzean.

**80. Dibertsitate funtzionala duten emakumeen errealitate, behar eta interesen inguruan, aukera ezazu erantzun OKERRA:**

- a) EAEn, dibertsitate funtzionala duen pertsonentzako egoitza-zentroen erabiltzaileen artean gutxiago dira emakumeak (% 42,30) gizonezkoak baino.
- b) Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko V. Makroinkestaren arabera (2015), % 33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa egiaztatuta duten emakumeen % 35 inguruk dio indarkeria fisiko zein sexuala edo beldur-egoera jasan izan dutela beren bikotekide edo bikotekide ohien eskutik.
- c) Dibertsitate funtzionala duten emakumeen mugimendua 90eko hamarkadako feminismo periferiko deitu diren horien inguruan egituratzen da.
- d) *Desgaitasuna duten Europar Batasuneko emakumeen eta nesken eskubideen II. manifestuak* (Budapest, 2011) Emakumeen Europako Lobbyaren babesa jaso zuen.

**81. Gasteizko emakume migratzaileen errealitate, behar eta interesen inguruan, aukera ezazu erantzun OKERRA:**

- a) Gasteizko Udalaren gaur egungo populazio-datuen arabera, zenbaki absolutuetan, emakume kolonbiarrak dira udalerrian presentziarik handiena duten emakume atzerritarak —atzerriko nazionalitatea dutenak—.
- b) Gasteizko Udalaren *Estudio diagnóstico sobre el fenómeno migratorio en Vitoria-Gasteiz* (2014) azterlanaren arabera, Saharaz hegoaldeko jatorria duten emakumeak dira populazio autoktonoarekin harreman gutxien dituztenak.
- c) Gasteizko Udalaren gaur egungo populazio-datuen arabera, ez da emakume palestinarrik bizi udalerrian, ezta emakume israeldarrik ere.
- d) Gasteizko Udalaren *Estudio diagnóstico sobre el fenómeno migratorio en Vitoria-Gasteiz* (2014) azterlanaren arabera, Helduen Hezkuntza Iraunkorreko (HHI) ikasketak egiten dituzten ikasle atzerritarren —atzerriko nazionalitatea dutenen— heren bat inguru dira atzerriko nazionalitatea duten emakumeak.

**82. “Virginia Woolf Basqueskola” izeneko eskolaren inguruan, aukera ezazu erantzun OKERRA:**

- a) 2012an sortu zen, Eudelek eta Emakundek bultzatuta.
- b) Genero-berdintasunaren arloko prestakuntza-espazio bat da, Euskadiko Udaletako gobernu-taldeetako emakumezko alkate eta zinegotziei zuzendua.
- c) Nazioarteko ikuspegia bere egina du, beste herrialde batzuetako emakume hautetsiekin ezagutzak eta baliabideak partekatzeke.
- d) Euskadiko Udaletako emakumezko alkate eta zinegotzientzako topaketa- eta elkarrizketa-espazio bat da.

**83. EAEko gobernu lokaletako emakumeen errealitate kuantitatiboari gagozkiolarik, aukera ezazu erantzun OKERRA:**

- a) Hauteskundeetako hautagaitzetako gizon eta emakumeen gehieneko eta gutxieneko presentziaren inguruko neurriak indarrean jarri izani aukera eman zuen EAEan udal hauteskundeetako emakumezko hautagaiak % 33tik (2003an) % 44ra igaro zitezenean 2007ko hauteskundeetan.
- b) 2007ko udal hauteskundeetan, euskal udalerrietan hautetsitako emakumeen portzentajea % 37koa izan zen, nahiz eta ordurako indarrean zeuden hauteskundeetako hautagaitzetako gizon eta emakumeen gehieneko eta gutxieneko presentziaren inguruko neurriak.
- c) 2015eko udal hauteskundeetan, zerrendaburu izan ziren emakumezko hautagaien portzentajea % 42koa izan zen.
- d) 2015eko udal hauteskundeen emaitzek hobetu egin zuten euskal udaletako emakumezko alkateen portzentajea, % 25ean geratu baitzen.

**84. Ekainaren 28ko 14/2012 Legean ezarrita dago pertsona transexualek —Euskal Autonomia-erkidegoaren esparruan— hainbat eskubide partikular dituztela ospitaletan eta osasun-zentroetan. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Esperientzia nahikoa duten profesionalen arreta jasotzea, nola tratamenduari dagokion espezialitate zehatzean hala transexualitatearen arloan oro har, bai zentro publikoetan, bai pribatuetan.
- b) Bere sentitzen duten sexuari dagokion genero-identitatearen araberrako tratua jasotzea.
- c) Zalantzarik badute, hirugarren iritzi bat eskatzea beste mediku bati, tratamendu edo interbentziorik egin aurretik.
- d) Bere identitateari dagozkion geletan edo zentroetan ingresatuak izatea, sexuaren araberrako areto desberdinak badaude, bai zentro publikoetan, bai pribatuetan.

**85. Ekainaren 28ko 14/2012 Legean jasota dago transexualitatearen arloko erreferentziako unitate bat sortuko dela Osakidetzan, lege indarrean jarri ondoren, epe honetan. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) urtebete.
- b) 6 hilabete.
- c) 3 hilabete.
- d) 9 hilabete.

**86. Ekainaren 28ko 14/2012 Legean ezarrita dago noiz joko den pertsona bat transexualtzat, legearen beraren ondorioetarako. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Erregistro Zibileko sexu-aipamena zuzendu duenean.
- b) Mediku elkargokideen txostenaren bidez egiaztatzen duenean ez duela adierazten duen eta aitortzea nahi duen genero-identitatearen inguruko okerrik izatera eragiten dion nortasun-nahasmendurik, eta sexu biologikoa eta bere sentitzen duen genero-identitatearen arteko disonantzia bizi duela gutxienez 6 hilabeteen.
- c) Erregistro Zibileko sexu-aipamena zuzentzen ari denean.
- d) Psikologo elkargokideen txostenaren bidez egiaztatzen duenean ez duela adierazten duen eta aitortzea nahi duen genero-identitatearen inguruko okerrik izatera eragiten dion nortasun-nahasmendurik, eta sexu biologikoa eta bere sentitzen duen genero-identitatearen arteko disonantzia bizi duela gutxienez 12 hilabeteen.

**87. Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak osatutako Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoan zaurgarritasun-arrisku handiena duten profilak identifikatzen dira. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) Pertsona bisexualak.
- b) Pertsona intersexualak.
- c) Mendekotasun-egoeran dauden LGTBI pertsonak
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**88. Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak osatutako Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoaren markoan, parte hartu duten elkarte eta pertsonen lan-proposamenak egiten dituzte udal-eskumeneko sexu- eta genero-aniztasunaren alorrean. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) LGTBIfobiaren aurkako Tokiko Behatoki bat eratzea.
- b) Bainugela mistoak prestatzea gizarte-etxeetan.
- c) Prestakuntza ematea osasun alorreko profesionalei, sexu- eta genero-aniztasunaren inguruan tratatu pertsonal, inklusibo eta errespetuzkoa sustatzeko.
- d) Gizarte-etxeetako eta beste udal-ekipamendu batzuetako prestakuntza-programen edukiak berrikustea (ikastaroak, tailerrak, etab.).

**89. Herritarrek parte hartzeko organoak Vitoria-Gasteizko Udalean. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) Gaur egun 13 elkargune daude, tartean Kirolena.
- b) Gasteizko landa-eremuko Kontzeju Elkarteak parte hartzen du Udalerriko Gizarte Kontseiluan.
- c) Hauek dira Lakua-Abetxuku auzogunean bilduriko Gasteizko auzoak: Abetxuku, Lakuabizkarra, eta Ibaiondo.
- d) Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua arduratzen da elkarguneen, auzoguneen, Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluaren eta Udalerriko Gizarte Kontseiluaren funtzionamendu eta koordinazioaz.

**90. Elkarte hauek hartzen dute parte Berdintasunaren elkargunean. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Emakume muralgileen elkarteak.
- b) Eginaren Eginez elkarteak.
- c) Emakumeak Aniztasunean elkarteak
- d) ASVE elkarteak.

**91. Hona jarraian Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskolari (gaur egun Ahalduntze Feministarako Eskola deitzen da) buruzko zenbait baieztapen. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Eskolak lantegiak antolatzen ditu adimen-desgaitasunen alorreko elkarteekin batera.
- b) Eskolaren ildo estrategikoen artean "Identitatea, subjektibitatea eta balio-aldaketa" izeneko dago.
- c) Berriki jarduera-ildo berri bat antolatu du Eskolak (# FeminismoanItzel), 10 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendua.
- d) Eskolaren ildo estrategikoen artean "Maskulinitate berriak" izeneko dago.

- 92. Gasteizko Genero-Berdintasunerako 2018-2021eko IV. Planak bere ondorioetarako indarkeria matxista zer den zehazten du, eta bi motatan bereizten du: indarkeria zuzena eta zeharkakoa. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Indarkeria matxista fisikoa eta psikikoa indarkeria zuzentzat jotzen da.
  - Indarkeria matxista sexuala indarkeria zuzentzat jotzen da.
  - Indarkeria matxista ekonomikoa zeharkako indarkeriatzat jotzen da.
  - Indarkeria matxista kultural edo sinbolikoa zeharkako indarkeriatzat jotzen da.
- 93. Abenduaren 28ko 172004 Lege Organikoak laguntza jakin bat arautzen du, ordainketa bakarrekoa, legearen ondorioetarako genero-indarkeriaren biktimatzat jotakoei zuzendua. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Laguntza hori jasotzeko eskubidea izango dute euren errentak lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75aren azpitik daudenean, aparteko bi pagen zati proportzionala kenduta.
  - Aitortuta balute % 33ko minusbaliotasuna edo handiagoa, laguntzaren zenbatekoa hamabi hilabeteko langabezia-sorospenari dagokion zenbatekoaren baliokidea izango da.
  - Laguntza horiek bateragarriak izango dira genero-indarkeriagatiko beste edozein toki-laguntzarekin.
  - Familia-ardurarik izango balute, laguntzaren zenbatekoa 18 hilabeteko langabezia-sorospenari dagokion zenbatekoaren baliokidera arte igo izango da.
- 94. Abenduaren 28ko 172004 Lege Organikoak arautu egiten du nola egiaztatu behar diren genero-indarkeriazko egoerak, “Laneko eskubideak eta Gizarte Segurantzaren prestazioak” kapituluaren araututako eskubideak ekuratu ahal izateko. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Genero-indarkeriako delitu batengatiko epai kondenatzaile bidez.
  - Fede emateko moduan eskatzailea genero-indarkeriaren biktima dela adierazten duen Fiskaltzaren txosten bidez.
  - Babes-aginduaren bidez.
  - Gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo Administrazio eskudunaren harrera-zerbitzuen txosten baten bidez.
- 95. Ordena zibilararen alorrean, eta Prozedura Kriminalaren Legearekin bat etorriz, Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiek kasu hauetan jardun ahalko dute. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Ezkontza-deuseztasunari, banantzeari eta dibortzioari buruzkoetan.
  - Adopzioan baiezkota eman beharri buruzkoetan.
  - Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanei buruzkoetan, bitartekaritza bidez.
  - Adingabeak babesteari buruzko administrazio-ebazpenaren aurka egitea xede dutenetan.
- 96. Indarkeria matxistako egoeran dauden emakumeei arreta emateko tokiko protokoloek alderdi hauek zehaztu beharko lituzkete. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Protokoloan parte hartzen duten aldean eskumen eta erantzukizunak.
  - Protokoloan parte hartzen duten aldeetako bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzu eta baliabideak.
  - Udalerrri auzokideen udal eta elkarte inplikatuakiko koordinazioa eta jarraitu beharreko jardunbidea.
  - Protokoloan parte hartzen duen alde bakoitzak jarraitu beharreko jardunbidea.
- 97. Indarkeria matxistako egoeran dauden emakumeei arreta emateko tokiko protokoloen motak. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Bideratzekoak.
  - Sail barrukoa.
  - Ezarritako arreta-prozeduran emakumeen harrera antolatzeak.
  - Erantzun guztiak zuzenak dira.

**98. Etxeko tratu txakarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko EAEko erakundeen arteko II. akordioaren jarraipen-batzordeko kide dira honako hauek. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ordezkaria.
- b) Euskal Kontseilu Medikoaren ordezkaria.
- c) Euskadiko Abokatuen Elkargoaren ordezkaria.
- d) Etxebizitzaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren ordezkaria.

**99. Honako hauek hartuko dira aintzat Etxeko tratu txakarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko EAEko erakundeen arteko II. akordioaren Jarduera protokoloan. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Susmo sendorik badago, ikasleren batek tratu txarrak eman edo sexu-indarkeria baliatzen duela neska ikasle baten aurka, *Berdinen arteko tratu txarren aurrean heziketa zentroentzako ekintzen gidan jasotako jarduera protokoloan* ezarritakoa aplikatuko da.
- b) Protokoloak gertatu berriztat jotzen ditu sexu-gehiegikeria edo -erasoen kasuak, baldin eta azken 72 orduko epean gertatu badira.
- c) Emakumeren bat Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara joaten bada, sexu-gehiegikeria edo -erasoa gertatu berriko kasu batean, haren osasun-zentrorra lagunduko zaio emakumeari.
- d) Emakumea EAEn bizi bada, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak arduratuko dira erasotzailearen espetxeratze egoerari buruzko informazioa emateaz.

**100. Etxeko tratu txakarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko EAEko erakundeen arteko II. akordioaren printzipio orokorrak dira honako hauek. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Eraginkortasuna eta arintasuna.
- b) Prebentzioa.
- c) Herritarren laguntza.
- d) Berdintasuna.

**101. Vitoria-Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren aurrean jendaurreko erantzuna emateko protokoloa 2018 agirian berariaz adierazten diren jarduteko printzipioen artean honako hauek daude.. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Erasotzailea baztertzea.
- b) Adingabeen interesen babesa.
- c) Jarduera azkarra.
- d) Prebentziozko jarduera.

**102. Hauxe ezartzen da Vitoria-Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren aurrean jendaurreko erantzuna emateko protokoloa 2018 agirian. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Honako hauek osatzen dute Protokoloaren Koordinazio Batzordea: Berdintasun Zerbitzuak, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak, Herritarren Segurtasunaren Sailak eta Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuak.
- b) Ondorioa heriotza duten sexu-erasoko kasuen aurrean, Gasteizko Udalak 15 minutuko elkarretaratzea instituzionala deituko du, Bozeramaileen Batzordeak erabakitzen duen ordu eta egunean.
- c) Sei hilean behin, Gasteizko Udalak kontu emateko deialdi publikoa egingo du, Gasteizen indarkeria matxistaren arloan jasotzen diren datuak eta egiten diren jarduerak ezagutarazteko.
- d) Sexu-erasoko kasuen aurreko adierazpen publikoetarako Protokoloak eskaintzen dituen gomendioen artean aurkeztutako salaketa kentzearena dago, halakorik balego.

**103. Gaur egun, indarkeria matxistako kasuen aurrean laguntza emateko zerbitzu eta baliabide hauek kudeatzen ditu Gasteizko Udalak. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Harrera etxebizitzak, indarkeria egoeran dauden pertsoneri eta haien kargura daudenei babesa, laguntza eta aldi baterako ostatua emateko.
- b) Indarkeria matxistaren alorrean espezializatutako laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko zerbitzua, indarkeria egoeran dauden emakume eta adingabeei zuzendua; bai eta gizon erasotzaileei laguntza psikosoziala ematekoa ere.
- c) ATEMPRO telelaguntza-programa. Telefonía mugikorraren bidez pertsonak lokalizatzeko zerbitzua, indarkeria egoerak nozitzeko arriskua dagoenean.
- d) Indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haien kargura daudenei psikologia, gizarte eta heziketa arloko laguntza emateko programa.

**104. Funtzio hauek betetzen ditu indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei zein haien kargura dauden pertsoneri psikologia, gizarte eta heziketa arloko laguntza emateko ONARPEN izeneko atalak (Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila). Adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) Haur eta nerabeen arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren aplikatzea.
- b) Indarkeria matxistari buruzko prestakuntza ematea Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko eta beste udal-sail edo erakunde batzuetako profesionalei, hala behar izatera.
- c) Lankidetzak Udaleko Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuarekin, zerbitzu horrek artatzen dituen eta intentsitate-adierazleak dituzten indarkeria matxistako kasuetan.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**105. Beldur Barik programa gazteen artean indarkeria matxista prebenitzekoa da. Haren inguruan, adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) Berdinsarea (Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea) izeneko sarearen barruan sortu zen 2009an.
- b) Burutzen dituen jardueren artean 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendutakoa ikus-entzunezkoen lehiaketa eta “Beldur Barik” Topaketa nabarmentzen dira.
- c) Gaur egun, Emakundek antolatzen du, Berdinsarea-EUDELen eta hiru foru aldundien bultzadarekin, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta EHUren laguntzarekin.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**106. Hezkuntza arautuan Emakundek bideratzen duen “Beldur Barik” programaren inguruan, aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) 2014an Emakundek “Beldur Barik” programa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgeletara transferitzeko esperientzia pilotu bat jarri zuen martxan.
- b) “Beldur Barik” irakaskuntza arautuan esperientzia 2013-2014 ikasturteetik 2015-2016 ikasturtera bitarteko aldirako Eusko Jaurlaritzaren *Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana* abiarazi zen.
- c) “Beldur Barik” esperientzian, “Beldur Barik” programatik ikastetxeetako irakasleei ezagutza transferitzeko beharrezko programazioak eta baliabide pedagogikoak diseinatu eta osatu ziren.
- d) “Beldur Barik” irakaskuntza arautuan esperientziaren testuinguruan, irakasleentzako prestakuntza eta aholkularitza jarduerak antolatu ziren, bai eta esperientziak elkarri trukatzeko mintegiak ere.



**107. Hona hemen Eusko Jaurlaritzaren 2016ko Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkestaren zenbait ondorio. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Benetako pobrezia-egoerari dagokionez, lau etxe mota berezi atzeman ziren pobrezia maila handieneko egoeran. Lan egonkorrik gabeko eta 45 urtetik beherako emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiak.
- b) Batez bestekoari dagokionez, benetako pobreziaren tasa handiagoa da etxe mota batzuetan, horien artean lan egonkorrik gabeko 45 urtetik gorako emakumeak buru dituzten familia bakarreko familietan.
- c) Oro har, eta familiaren buruan emakume edo gizon bat dagoen kontuan izan gabe, 2016an benetako pobreziaren tasa antzekoa izan da emakumeen (% 5,9) eta gizonen (% 5,6) artean.
- d) Buruan gizona duten familietan pobrezia erreala 2012an hasi zen jaisten, buruan emakume duten familietan baino lehenago, azken hauetan 2014an hasi baitzen jaisten.

**108. Gasteizko Udalak zenbait baliabide ditu gizartetik baztertuak izateko arriskua duten pertsonen gizarteratzen laguntzeko, besteak beste hauek. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Estrada eguneko udal zentroa, gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako.
- b) "Etxe Irekia" zentroa, mantenu eta ostatua emateko iraupen laburreko baliabidea, gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako.
- c) Alor sozioedukatihoan intentsitate handiz esku hartzeko "HURBIL" lantaldea, gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen arreta psikosozial eta hezkuntzako eskaintzeko.
- d) Harrera Sozialerako Udal Zentroa (HSUZ), iraupen ertain-luzeko ostatu eta elkarbizitza baliabidea, gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako.

**109. Gizarteratzen laguntzeko asmoa duen "Gizarteratu" programak lantegi eta ikastaro jarraitu sorta bat eskaintzen du. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) Gizarte-hezkuntzako arloko eta eremu psikosozialeko lantegiak.
- b) Hizkuntza gaitasunen eta komunitate murgiltzearen arloetako lantegiak.
- c) Lanean hasi aurreko ikastaroen alorreko Profesionaltasun-Ziurtagiria prestatzeko ikastaroak
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**110. Hona zenbait mugarri garrantzitsu eskola segregatuaren, mistoaren eta hezkidetzaileren inguruan. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) XX. mendearen hasieran, hezkidetzak-espereintziak izan ziren Katalunian.
- b) Eskolan neskak eta mutilak derrigorrez bereizi beharra aipatzen ez duen lehen lege frankista Hezkuntzari eta Hezkuntza Erreformaren Finantziarioari buruzko Lege Orokorra da.
- c) 1970etik aurrera hasi zen nagusitzen eskola mistoa.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**111. 2017-2019 aldian Emakundek sutatuta, Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako (DLH) ikasleei zuzentzen zaien *Nahiko!* Programan parte hartzen duten ikastetxeek zenbait konpromiso hartzen dituzte bere gain. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) Irakasleak hezkidetzan eta berdintasunean prestatzeko sei hilean behineko jardunalditan parte hartzea.
- b) Ziklo bakoitzari berariaz egokitutako Programaren materialak erabiltzeari buruzko mintegietan parte hartzea: 2017-2018 ikasturtean DLHko 1, 3. eta 5.erako materialei buruzkoetan, eta 2018-2019 ikasturtean DLHko 2., 4. eta 6.erako materialei buruzkoetan.
- c) Programan parte hartzen duten 6 eta 14 urte bitarteko ikasleen erreakzioak eta portaerak behatzea.
- d) Bi ikasturteetan (2017-2018 eta 2018-2019) programan parte hartzea, DLHko bi zikloetatik aukeraturakoari dagokion programa gauzatzeko.

**112. *Ikastetxeetan genero-indarkeriaren prebentziorako esku-liburuan* esaten da sexismoa ikasleen artean atzemandako ziber-indarkeriaren jatorrietako bat dela, eta praktika hauek aipatzen dira ziber-indarkeriaren adierazle gisa. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) *Stalking* edo profil eta edukien kontrola.
- b) *Sexting* edo eduki erotiko eta sexualak bidaltzea argazki eta bideoetan.
- c) *Sextorsioa* edo baimenik gabe eduki erotikoein xantaia egitea eta horiek publikatzea.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.



- 113. EAEko hezkuntza sistemarako II. Hezkidetza-Plana (2019-2023) kaleratu du Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, bertan zenbait jarduketa hauek burutzea planteatzen delarik. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Irakasleen prestakuntza iraunkorrerako Prest-Gara planaren esparruan, hezkidetzari buruzko ikastaro espezifikoak eskaintzea.
  - Hautemandako beharren arabera, ISEI-IVEI (Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Sistema) erakundeari bost urtean behineko txosten bat eskatzea, ikasleek DBH amaitu ostean duten eskola-ibilbideari buruzkoa.
  - Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako berdintasuneko indizea lantzea, eskola mistoa hezkidetza-eskolan eraldatzeko aldaketak ebaluatzeko
  - Ikastetxeen Elkarbizitzaren Behatokian ikastetxeak garatzen duen hezkidetzako lanari lotutako funtzioak jasotzea.
- 114. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planean jasotako helburuen artean hauxe dago: “Emakumeek eta gizonek ikaskuntzako eta aisiako baliabideetan, artean, kulturean eta jaietan duten parte-hartzean dagoen genero-desoreka murriztea”. Helburu horren adierazleak ere ezarri ditu. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- 6 urtetik gorako biztanlerian indar gehien duten ikaskuntzako, aisiako eta kulturako jarduerak, jardueramotaren eta sexuaren arabera.
  - 6 urtetik gorako biztanlerian indar gehien duten beste jarduera batzuk, jardueramotaren eta sexuaren arabera.
  - Obrak erakusgai jartzen dituzten, programazioetan esku hartzen duten (komisarioak eta adituen beste profil batzuk), hitzaldiak eta mintegiak ematen dituzten, obrak bildumetan dauzkaten eta obrak EAEko museoetan eta arte- eta/edo kultura-zentroetan saltzen dituzten emakumeen eta gizonen kopuruaren bilakaera.
  - Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 115. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planean jasotako helburuen artean hauxe dago: “Kirolean dagoen generoen arteko desoreka murriztea modalitate eta diziplina desberdinetan, emakume guztien parte-hartzea handituz”. Helburu horren adierazleak ere ezarri ditu. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**
- Eskola kiroleko partaidetzaren bilakaera, sexuaren arabera eta kirol-diziplinaren arabera.
  - EAEn kirol-jarduerak egiten dituzten 6 urtetik gorako biztanleria, maiztasunaren eta sexuaren arabera.
  - Kirol federazioetako zuzendaritza-taldeetan dauden emakumeen ehunekoaren bilakaera.
  - Emakumeei emandako goi-mailako kirolarientzako diru-laguntzen ehunekoa.
- 116. Hauek dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zeharkako genero-estrategiaren jarduera-ildoak. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- Genero-ikuspegia instituzionalizatzeko prozesuak bultzatzea, bai euskal lankidetz-agentzeengan, bai GLEAren barruan ere.
  - Emakumeen behar praktikoak eta interes estrategikoak bilduko dituzten, eta maskulinitasun hegemonikoa zalantzan jarriko duen esku hartzeko metodologia sustatzea.
  - Genero-ikuspegiaren zeharkakotasun-esperientzia positiboen trukea sustatu eta hedatzea, tokiko mailatik nazioarteko mailaraino.
  - Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 117. “Emakumea garapenean/MED” eta “Generoa garapenean/GED” ikuspegiak garapenerako lankidetzako proiektuetan. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**
- “Generoa garapenean/GED” ikuspegiaren arabera, arazoa emakumeak garapen prozesuetatik baztertzea da.
  - “Generoa garapenean/GED” ikuspegiaren arazoetako bat da sarritan areagotu egin duela emakumeen lan-zama, kokapen soziala hobetu gabe.
  - “Emakumea garapenean/MED” ikuspegiaren arabera, konponbidea emakumeak eta egoera ahulean dauden pertsonak boteretzea eta harreman desorekatuak aldaraztea da.
  - “Emakumea garapenean/MED” ikuspegiaren arabera, ondorio negatiboetako bat da emakumeak gizonen munduan “integratzea” direla, baina botere harremanen aldaketarik gabe.

**118. Hirigintza-plangintzan, garraio publikoa pertsonen eguneroko bizitzan eragin handia duen elementua da. Jarraian, emakumeen gaurko behar praktikoetan modu positiboan eragin dezaketela iritzitako neurri batzuk aipatzen dira. Adieraz ezazu erantzun zuzena.**

- a) Garraio publikoaren diseinuan kontuan hartzea pendulu moduko joan-etorriko beharretatik haragokoak.
- b) Aisialdiko instalazioetarako joan-etorriak garraio publikoaren bitartez egin ahal izatea bermatzea.
- c) “Neurrira” diseinatutako garraio-zerbitzuak garatzea.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**119. Eusko Jaurlaritzak argitaratutako 2018ko Euskal Osasun Inkestan zenbait baieztapen egiten dira genero-arrakalari buruz euskal biztanleen osasunari dagokionez. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) Azken urteotan, sedentarismoak behera egin du, gizon zein emakumeen artean. Halere, emakumeen % 27k eta gizonen % 20k ez du ariketa fisiko osasungarririk egiten.
- b) Gaixotasun kronikoek eta jardueraren muga kronikoak pixkatxo bat gehiago eragiten die emakumeei gizonekoei baino
- c) Bizi-itxaropenak hazten jarraitzen du, gizonengan zein emakumeengan, baina horren trukean hazi egin da baita desgaitasunarekin bizi izandako urte-kopurua, batez ere gizonekoengan.
- d) Obesitatearen prebalentzia urriagoa da emakumeengan gizonekoengan baino, eta, gainera, behera egin du pixka bat. Horrez gain, datuak Estatukoak eta Europakoak baino baxuagoak dira.

**120. Emakunderen 2018ko zifrak: Emakumeak eta gizonak Euskadin txostenean zenbait baieztapen egiten dira EAEko osasun-egoerari buruz. Aukera ezazu erantzun OKERRA.**

- a) 2018ko inkestaren arabera, antsietateak eta depresioak gehiago eragiten diete emakumeei gizonari baino. 15 puntukoa da genero-arrakala.
- b) 2018ko inkestaren arabera, eta osasunari buruzko pertzepzio orokorrari dagokionez (oso ona, ona, erdipurdikoa, txarra eta oso txarra), zifra absolututan alderik handiena beren osasun-egoera erdipurdikoa dela uste duten emakume eta gizonen artean dago.
- c) 2018ko inkestaren arabera, emakumeen % 7,4k eta gizonen % 4k dituzte zailtasunak beren buruaren zaintzan.
- d) 2017an ospitaleratutako emakumeen eta gizonen portzentajeen arteko diferentzia oso txikia da; 3 hamarrena mugatzen da.